

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduak

PRACTICUM II

Gida Orokorra

2019-2020 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. IRAKASGAIAREN TESTUINGUA.....	2
3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA	3
3.1. Prozedura administratiboak.....	3
3.2. Arau orokorrak.....	4
3.3. Plazen eskaintza eta esleipena.....	4
3.4. Ikasleen ikastetxe hautaketa	5
3.5. Baliozkotzeak	5
3.6. Kasu Bereziatarako irizpideak.....	6
3.7. Practicumeko partaideen eginkizunak	8
3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea.....	8
3.7.2. Ikastetxeko tutorea.....	9
3.7.3. Unibertsitateko Practicum IIko koordinatzailea	10
3.7.4. Unibertsitateko tutorea	10
3.7.5. Ikasleak.....	11
4. PRACTICUM IIKO PROGRAMA.....	12
4.1. Helburuak.....	12
4.2. Konpetentziak.....	12
4.3. Ikaskuntza emaitzak	13
4.4. Gaitegia	15
4.5. Ebaluazioa.....	16
5. ERANSKINAK.....	18
Eranskin I. Ebaluazio orria. Ikastetxeko tutorea.....	18
Eranskin II. Ebaluazio orria. Unibertsitateko tutorea	20

1. SARRERA

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Gradu ikasketetan asko zabaldu da ikastetxeetan burutu beharreko praktikaldia aurreko diplomaturarekin alderatuz gero.

Aldaketa horrek aukera eman digu praktikaldia hiru ikasturtetan banatzekoa: 5 aste, bigarren mailan, 7 aste, hirugarrenean, eta 12, laugarrenean. Azken ikasturte horretan Minorra edo espezialitatea egiten da.

Horrela, Practicum Ia lehen hurbiltze moduan ulertu dugu. Praktikaldi horretan, ikasleak ikastetxean eta, batez ere, ikasgelan eragile diren alor guztiak behatu eta aztertuko ditu.

Practicum IIan beste urrats bat ematen da ibilbide horretan; orain, ikasleak irakasle jardunean jarriko du bere arreta. Horretarako, batetik, irakasle tutorearen jarduna behatu eta aztertuko du, ikaslearen beraren jarduerarako ereduak eta adibideak jasotzeko; bestetik, ikaslea behatzaile izatetik ikasgelan esku hartzera pasako da, irakasteak dituen alde guztiak barrutik ezagutzeko eta bizitzeko.

Planteamendu horrek, azken finean, ikaslea bere jardunaren alde anitzak behatzera eta horiez hausnartzera bultzatuko du, ekintza eta behaketa uztartuz, azterketa hausnarketa bihurtuz.

2. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA

Praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3 urte 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan (1.-2. maila, 3.-4. maila, 5.-6. maila) egiten dira. Practicuma mailakatua izanik, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean gauzatuko dute ikasgai hori (Practicum I, Practicum II eta Practicum III); edukiek egonaldien jarraipena egingo dute eta, horiek aurrera joan ahala, konpetentzia mailak gora egingo du.

Haur nahiz Lehen Hezkuntza Graduetako hiru Practicum irakasgaietan ikaskuntza prozesu mailakatua gertatzen da. Horregatik, 2020-2021 ikasturtetik aurrera, Practicum I, Practicum II eta Practicum III irakasgaiak beren artean giltzatuak izango dira. Hala, Practicum IIan matrikulatzeko ezinbestekoa izango da Practicum Ia gainditua izatea; Practicum IIIan matrikulatzeko, Practicum Ia eta Practicum IIa izan beharko dira gaindituak.

Practicumak emango dio ikasleari bere lanbidean behar dituen trebetasunak, ezagutzak, konpetentziak eta praktikak eskuratzeko aukera, baita egindako ikasketaren inguruan bakarka nahiz taldean hausnartzeko ere.

Ikasgaiari dagozkion kredituak taula honetan adierazten den moduan banatzen dira:

Taula 1. Kronograma

	EGONALDIA	EPEALDIA	KREDITUAK
PRACTICUM I	5 aste (30 ordu astean)	urria- azaroa	HH: 8 kr. LH: 9 kr.
PRACTICUM II	7 aste (30 ordu astean)	otsaila-apirila	HH: 12 kr. LH: 11 kr.
PRACTICUM III	12 aste (30 ordu astean)	azaroa-otsaila	HH: 18 kr. LH: 18 kr.

Practicum I ikasgaiaren helburua ikasleek, irakasle izango diren neurrian, ikastetxe batekin lehen harremana izatea eta behaketa parte-hartzaile orokorra egitea da, ordura arte ikasitakoa erabiliz, eta irakaspen horiek gelako aniztasunera, ikastetxera eta haren gizarte ingurunera egokituz.

Practicum IIa hirugarren ikasturteari dagokio eta honako hauek lantzen ditu, batik bat: garaian garaiko ikasleen irakaskuntza eta ikaskuntza esperientziak garatzea, zikloan eta etapan esku hartzea, eta autokritika eta hausnarketa lantzea norberaren prestakuntzan eta lanbidean. Ikasleek testuinguru horietan erabili duten hasierako ezagutza praktikoari, eta beren pentsatzeko eta jarduteko modua zehazten duten baldintzei buruzko hausnarketa egitea da helburua.

Practicum IIIa Minorrarekin eta berrikuntza proiektuetan parte hartzearekin dago lotua.

3. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2012ko urriaren 16koak, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretuak, martxoaren 6koak, arautzen dute Practicuma.

3.1. PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK

Praktikak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearen (HEFA) Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan.

Tutoreei eta ikasleei aholkatzeko xedez, Praktiketako Dekanordetzak berriazko informazio-dokumentuak izango ditu Practicum bakoitzerako. Bertan, ikasle eta tutoreentzako orientazio orokorrak jasoko dira; besteak beste, lortu nahi diren helburuak, lan-metodologia gomendagarriak, garatu beharreko prestakuntza-jarduera eta -eginkizunak, ebaluazio-irizpideak, antolakuntza-alderdiak, ordutegiak, jakintza arloak/inplikaturako sailak, eta praktikak modu egokian gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Behin praktikak amaituta, Hezkuntza Sailak kasuan kasuko ziurtagiriak igorriko dizkiete ikastetxeetako tutoreei, ofizioz, 33/2018 Dekretuan ageri gisa.

Praktiken hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak beteko; hala, praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduei atxikitako enborreko irakasgaiaenez, Fakultateak berak antolatzen eta arautzen du. Practicum dekanordetzaren zuzeneko arloa da eta Practicumeko Batzordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Praktiketako Dekanordetzara eta Batzordera jo beharko du.

3.2. ARAU OROKORRAK

- Ikasleak Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikek iraun bitartean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe, denboraldi edo ordutegi aldaketak) Magisteritza Arloko Practicum AzpiBatzordeari dagokio. Beraz, ikasleek aipatu AzpiBatzordeari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, HEFAn Kasu Bereziatarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera.

3.3. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako AzpiBatzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

- Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.
- PI, PII eta PIIIren hautaketa irizpide bakarra akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gaitutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea.

Behin ikastetxea esleituta, ikasleak praktiken onarpen agiria eta horiek modu egokian garatzeko eta, kasuan kasu, bere esku dituen datuak babesteko konpromisoa sinatuko ditu.

3.4. IKASLEEN IKASTETXE HAUTAKETA

Lehen aipatu bezala, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta EJK berak nahikoa plaza emango dizkio Fakultateari titulu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko.

Ikasleek Gipuzkoan onarturiko praktiketako prestakuntza zentroyen eskaintza hautaketa egingo dute, bere titulazioaren arabera, Fakultateak lorturiko plaza eskaintza zerrendatik abiatuta.

Practicum Dekanordetzak eskaintza argitaratuko du eta ikasleek plaza eskaera egiteko egutegia finkatuko du.

OHARRA: Prozedura hau alda daiteke Eusko Jaurlaritzako 33/2018 Dekretuaren ezarpen prozesuaren arabera.

3.5. BALIOZKOTZEAK

Egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

Taula 2. Baliozkotzeak

Irakasgaia	Irakasgai osoa	Egonaldia bakarrik
Practicum I	HH eta LH diplomatua edo graduatua bada. <hr/> Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian, Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada. <hr/> Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.	Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.
Practicum II	HH eta LH ikasketetan diplomatua edo graduatua bada. <hr/> Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.	Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten badu.

Practicum III

Praktika denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, Minorraren alorrean.

Edonola ere, ikasleak irakasgaiari dagozkion gainerako baldintzak bete beharko ditu.

3.6. KASU BEREZIETARAKO IRIZPIDEAK

Arau orokor gisa, Practicuma enborreko irakasgaia da eta, beraz, errespetatu beharreko egutegi, ordutegi eta ordu kopurua ditu zehaztuak.

Ikasle batek ezin badu Practicuma ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera "Kasu Berezi" bat izan daiteke:

1. Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak.¹
2. Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dituzten ikasleen kasuan.²
3. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak.³
4. Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak.⁴
5. Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.
6. Garapenerako Lankidetzeta programetan parte hartzen duten ikasleak.
7. Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
 - a. Gaixotasunak, istripuak
 - b. Arazo administratiboak
 - c. Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera horietako batean egongo den ikasleak eskaera formala egin beharko du bere egoera "Kasu Berezi" bezala kontuan har dadin. Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordioarik.

Egoera horien aurrean ikasleak egin ditzakeen eskaera motak:

1. Praktikaldiaren egutegia aldatzea
2. Praktikaldiaren ordutegia aldatzea
3. Praktiken zentro aldaketa

Prozedura honako hau izango da:

¹ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10. artikulua arabera:

https://www.ehu.eus/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf.

² UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8. artikulua arabera.

³ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9. artikulua arabera.

⁴ UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6. artikulua arabera.

1. Ikasleak kontenplätzen diren Kasu Berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
2. Ikasleak web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du.
3. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak bilduko ditu.
4. Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
5. Practicum AzpiBatzordeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
6. Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
7. Practicum Batzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako zentroari komunikatuko zaio eta, zentroak egoera edo Kasu Bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta kanpoko tutoreari komunikatuko zaie. Zentroak baldintza bereziak onartzen ez baditu, beste zentro bat bilatu beharko da.
8. Practicum Batzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta ez du inolako eskubiderik izango praktikaldiko baldintza orokorrak ez betetzeko.
9. Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten Kasu Bereziatako eskaera guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

OHARRAK:

- Practicumean data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste irakasgai batzuetara huts egiteko.
- Egonaldiaren egutegia edo ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke, baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintze aldera.

Egonaldia modu honetan luza daiteke, adibidez:

IRAKASGAIA	EGONALDIA	ASTE KOPURUA
Practicum I	goizez bakarrik	10 aste
Practicum II	goizez bakarrik	14 aste
Practicum III	goizez bakarrik	24 aste

- Practicumari dagokion praktika-egonaldia lanaldi erdiz egiteko, eskatutako praktikaldiari dagokion hasiera data bera izango du.
- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Kasu guztietan, praktiken denboraldia laburtu ahalko da, goizei arratsalde batzuk gehituta.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.

- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik.
- Ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da eskolan.
- **Salbuespenak:**
 - Dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.
 - Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek memoria egin ezean edo gaudituz ezean, hurrengo ikasturtean egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

3.7. PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

3.7.1. Ikastetxeko koordinatzailea

Practicumaren koordinatzaileak izango du praktiketan dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura bere ikastetxean eta, halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egokiak diren harremanak egitea.

Aitortutako zentroko zuzendariak, bertako ordezkari gorenaren den aldetik, hezkuntza zentro horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

Eginkizunak:

- Practicuma egiten ari diren ikasleei ikastetxean egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Hezkuntza-zentroko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan, eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duen eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.

- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Zentroaren Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Zentro hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek zentroaren bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak...

3.7.2. Ikastetxeko tutorea

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde horien artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriei buruzko orientabideak ematea, baita Zentroko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketari dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikastetxeak dauzkan baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen konpetentziak ebaluatzeko azken balioespina egitea.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.

- Practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

3.7.3. Unibertsitateko PIIko koordinatzailea

Practicumaren koordinazio lanak hauxe eskatzen du:

- Practicumeko AzpiBatzorde kidea da.
- Koordinazio eta kudeaketa akademikoaren arduraduna da, tutorearekin batera.
- Gidako zereginen planifikazioaz arduratzen da, baita praktikaldiko koordinazioaz eta Practicum IIko ebaluazio eta hobekuntza proposamen orokorrak egiteaz ere.
- Ikasleen esleipenaz arduratzen da.
- Gidak eguneratzen ditu.
- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatzen ditu eta informazio eta formazio beharrak identifikatu eta batzordera eramaten ditu.

3.7.4. Unibertsitateko tutorea

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza Graduetako enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Zuzendariordeak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikasgeletako jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura. Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea ikasgeletan aplikatu daitezkeen, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzatza estu batetik abiatuta.
- Praktiketari ari diren ikasleekin bilerak antolatzea.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Bere ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, zentroetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktikaldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako kompetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz ohartaraztea ikasleari.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.

- Ikasleak egindako lanak, aitortutako zentroko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicum-aldia kalifikatzea.
- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleen praktiketako tutorearekin harremanetan egotea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz ohartaraztea ikasleari.
- **Bisitak ikastetxeetara:** Practicum IIak irakaskuntza aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzaren harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio bisita bat edo gehiago egingo ditu, ikastetxeko maisu-maistren lana lehen eskutik ezagutzeko eta unibertsitatearen eta ikastetxearen artean zubiak eraikitzeak. Hauek dira bisita horren funtzioak eta edukiak:
 - 1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.
 - 2.- Ikastetxeko tutorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak eta ebaluazio tresnak erabakitzea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.
 - 3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

3.7.5. Ikasleak

Practicumak hauxe eskatzen du:

- Esleitutako plazaren datuak egiaztatzea.
- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horren araudia errespetatzea.
- Zentroko eta unibertsitateko tutoreekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.

- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoetara jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.

4. PRACTICUM IIKO PROGRAMA

4.1. HELBURUAK

Haur nahiz Lehen Hezkuntzako irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte gelako lanean eragiten duten curriculum diseinuetan jasotako esparru guztiak, betiere edukien naturaren eta konplexutasun mailaren arteko elkarrekotasun egokia finkatuz; horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuz.

Horretarako beharrezkoa izango da:

1. Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
2. Lankideekin taldean lan egitea.
3. Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
4. Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
5. Koordinazio-funtzioak betetzea.

4.2. KONPETENTZIAK

Taula honetan ikus daiteke, batetik, Practicumerako egokitu diren konpetentzien definizioa, eta, bestetik, konpetentzia horien errazago erabiltzeko izendatutako deskriptoreak.

Taula 3. Practicum IIko konpetentziak eta deskriptoreak

PRACTICUM IIKO KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
Elkarreragin eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea. Ikaskuntza eta elkarbizitza errazteko beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasun sozialak menderatzea.	KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA
Hezkuntza prozesuaren jarraipena egin eta kontrolatzea.	IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK
Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea.	TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA

4.3. IKASKUNTZA EMAITZAK

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jarduera multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratortzen diren "ikaskuntza-emaitza" deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza emaitzek zehaztasun maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluaziorako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori guztia ondoko taulan jasotzen da:

Taula 4. Konpetentziak, I.E., E.A.k eta ebidentziak

KONPETENTZIAK (deskriptoreak)	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA		Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen dituzten jarduerak.	ITEO ⁵ , BIDEOA
	Taldearekin eta taldekideen arteko komunikazioa erregulatzea.	Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokatzeko du.	ITEO, BIDEOA
		Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu.	ITEO, BIDEOA, MINTEGIA-FOROA, MEP ⁶
	Komunikazio teknikak modu egokian erabiltzea, euskaraz nahiz gaztelaniaz.	Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan.	ITEO, BIDEOA
	Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan.	ITEO, BIDEOA, MEP	

KONPETENTZIAK (deskriptoreak)	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK
IKAS- IRAKASKUNTZA- RAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK	Curriculumaren esparruetara eta konpetentzietara xedaturik dauden jarduera didaktikoak diseinatzea	Ikasitako ikaskuntza-printzipioak eta metodoak aplikatzen ditu.	MEP, MINTEGIA- FOROA
		Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak.	ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA
		Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.	ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA
		Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak baloratzean.	ITEO, MEP MINTEGIA-FOROA
TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA	Teoria gelako errealitateara egokitzen jakitea eta praktikari berari buruzko hausnarketa egiteko gai izatea	Modu kritikoan aztertzen du maisu-maistraren eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz.	MEP, MINTEGIA-FOROA
		Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan.	MEP, MINTEGIA-FOROA
HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA	Ikaskuntza egoeren garapena eta norberaren konpetentzia profesionalak balioestea	Lanaren inguruko jakin-mina eta hausnarketarako jarrera adierazten du.	EGUNEROKOA, MEP, MINTEGIA- FOROA
		Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du.	ITEO, BIDEOA
	Maisu-maistraren eginkizuna bere gain hartzea	Irtenbide berritzaileak bilatzen ditugela sortutako egoeren aurrean.	ITEO, MINTEGIA- FOROA
		Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu.	ITEO, MINTEGIA- FOROA
Ikerketarako gaiak identifikatzea	Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu.	MEP, MINTEGIA- FOROA	

⁵ ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria.

⁶ MEP: Memoria/Ebidentzia karpeta/Portfolio..

4.4. GAITEGIA

1. gaia. **Maisu/maistra tutorearen eginkizuna**

- Bizikidetza arauak jakinaraztea eta gela barruko harremanak:
 - Elkarrekintza prozesuen arauketa.
 - Egoera diskriminatzaileak eta horien aurrean izan beharreko jarrera (jarduteko protokoloak eta programak).
 - Gaitasun sozialen erabilera (gizarte konpetentziak) eta horiek gatazken konponketan aplikatzea.
 - Konpetentzia linguistikoa: egokitzapena eta zuzentasuna hizkuntzaren erabileran.
- Ikasleen motibazioa.
- Ikasleei orientazioa eta tutoretza eskaintzea.
- Familiekin harremanak, lankidetza, eta familiaren eta ikastetxearen arteko eginkizunak bereiztea.

2. gaia. **Irakaslearen praktika**

- Gelako programazio unitateak: metodologia irizpide orokorrak
- Curriculuma ikastetxearen errealitatera egokitzea.
- Hainbat esparruren programazio didaktikoak aztertu eta jarduerak diseinatu eta ezartzea.
- Gelan esku hartzeko estrategiak.
- Ebaluazio irizpideak.
- Aniztasunaren tratamendua.

4.5. EBALUAZIOA

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: batetik, unibertsitateko tutoreak eta, bestetik, Practicum a egin den ikastetxeko tutoreak. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan: unibertsitateko tutorearen ebaluazioak azken notaren % 70

balioko du. Gainerako % 30a ikastetxeko tutoreak baloratuko du, ikasleak praktika-aldian egin duen lana kontuan hartuta.

Irakasgaiaren beraren kompetentziak lortzea da Practicumaren helburua eta, horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat, gainditzen ez badu, azken nota gutxiegi izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ez ohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ezohiko deialdian ere gainditzen ez badu, Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.
- Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, ikasleak matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.
- Practicum irakasgaiak giltzatuak izango dira beren artean 2020-2021 ikasturtetik aurrera; Practicum IIan matrikulatu ahal izateko Practicum Ia gainditua izan beharko da aurretiaz, eta Practicum IIIan matrikulatzeko, Practicum Ia eta Practicum IIa beharko dira gaindituak.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian gutxiegi jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan % 80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten kompetentziekin daude lotuak eta, beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

5. ERANSKINAK

ERANSKIN I: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA (PRACTICUM II)

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:

NAN:

IKASTETXEA:

IKASLEA:

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio irizpideak ikasleek bete behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen ditu jarduerak.	
	Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokutzen du.	
	Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu.	
	Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan.	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10)	

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
IKAS-IRAKASKUNTZA- RAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK	Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak.	
	Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.	
	Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak balioestean.	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10)	

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
--------------	-----------------------

HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA	Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du.	
	Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean.	
	Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezkoak diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu.	
	Lanaren inguruko galderak egiten ditu.	
	BALORAZIO OROKORRA (1-10)	

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

SINADURA:

.....(e)n,202.....(e)ko.....ren(e)(a)n

ERANSKIN II: EBALUAZIO ORRIA. UNIBERTSITATEKO TUTOREA (PRACTICUM II)

UNIBERTSITATEKO TUTOREA:.....

IKASLEA:

GRADUA:

IKASTURTEA:

Hemen azaltzen diren irizpideak ikasleak bete beharreko gaitasunei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan.	
	BALORAZIO OROKORRA	

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
IKAS- IRAKASKUNTZA - RAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK	Ikasitako ikaskuntza printzipioak eta metodoak aplikatzen ditu.	
	Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak.	
	Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana.	
	Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak baloratzean.	
	BALORAZIO OROKORRA	

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA	Modu kritikoan aztertzen du maisu-maistraren eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz.	
	Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan.	
	BALORAZIO OROKORRA	

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	
HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA	Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean.	
	Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta a estrategiak erabiltzen ditu.	
	Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu.	
	BALORAZIO OROKORRA	

IKASTETXEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)		
KONPETENTZIAK	KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA	
	IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK	
	HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA	
	BALORAZIO OROKORRA	

OHARRAK:

.....

KALIFIKAZIOA (1-10) :

SINADURA:

.....(e)n, 202...(e)koren(e)(a)n